

# **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

## **ZEINTZUK DIRA BEHAR DITUZUEN ELEMENTU GARRANTZITSUENAK PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?**

**Baliabide fisikoak**: Enpresa batek dituen objektu ukigarri guztiak dira, eta funtsezkoak dira lan-eremuarekin lotutako lanak egiteko. Balio eta kudeaketa propioak dituzte, beren administrazioaren mende baitago industria baten alderdi finantzarioa eta produktiboa.

- **Lan gunea: Baserria.** Baserri zahar bat berrituko dugu eta bi zatitan egongo da banatua. Alde batean hotela egongo da eta bestean berriz, gure instalazioak (harrera-lekua, bulegoa, txakur janari-denda eta biltegiatzea) eta txakurren egun pasa tokia egongo dira. Baita ere, lurzoru berde handi bat beharko dugu kanpoaldean, txakurrak jolastu ahal izateko.



- **Bulego eta harrera-lekuko materiala.** Ordenagailuak, telefonoak, mahaigainak, altzariak, inprimagailuak etab.
- **Sistemak.** Komunikazio sistema eta internet-sarea.
- **Garraioa.** Autobus handi bakar bat beharko dugu kaiola batzuekin txakur guztiak garraiatu ahal izateko toki batetik bestera.



- **Salmenta puntuak.** Gure txakur-produktuen (txakur-janaria) salmenta puntua gure eraikin batean bertan egongo da, denda fisikoan bakarrik salduko dugu.
- **Banaketa kanalak.** Gure banaketa mota (txakurren garraioa) zerbitzu baten bidez burutuko da. Autobus-zerbitzu bat eskeintzen dugu.
- **Biltegiatzea.** Inbentarioa non egingo den; leku hori ere eskuratu edo zabaldu egin daiteke, are gehiago.
- **Demanda.** Behar diren produktuen kopurua edo merkatuaren joerak, zenbait zerbitzu eskatzeari dagokionez.

**Baliabide intelektualak:** *Happets* enpresarekin kontratu bat sinatuko dugu eta gure enpresarekin elkartuko da, enpresa berri hau sortuz.

*Happets*, txakur bakoitzaren behararen arabera dieta bat sortzen duelako xehetasun guztiakin. Zure txakurraren ezaugarrietan eta nutrizionista- eta alaitari-taldearen ezagutzan oinarrituta, bazkari pertsonalizaturako errezeta bat diseinatuko dute.

Zerbitzu honen aurrekontua txakurraren tamainaren araberakoa da. Beraz, txakurrak geroz eta pisu gehiago izan garestiagoa izango da. Hala ere, 10-65€ artean dago txakur bakoitzaren janariaren prezioa.



<https://www.happets.com/>

**Giza baliabideak:** Giza-baliabideak ezinbestekoak dira negozioa funtziona dezan, horregatik gutako bakoitzak eginkizun ezberdin bat izango du enpresan. Gainera, zenbait enpresa ezberdin kontratatuko beharko ditugu gurekin lan egiteko, hala nola arkitektoak eta albaitariak.

- **Lide:** Diru kontuen kudeaketaz eta administrazioaz arduratuko da; langileen soldatak, diru-sarrerak eta gastuetaz besteak beste.
- **Laura:** Txakurren autobus gidaria izango da.
- **Naiara:** Garbiketaz arduratuko da, kontratatuko beste garbitzaileekin batera. Gunea txukun eta garbi egoteaz arduratuko da. *Rivera* enpresako langileekin batera egingo du lan.
- **Oihane eta Susana:** Bai txakurren eta haien jabeen harreraz arduratuko dira, baita txakurren egokitzapenaz ere. Jabeen instalakuntzak erakutsiko dizkiete baita ere.

**Finantza-baliabideak:** Proiektuarekin hasteko kreditu bat eskatu beharko dugu bankuan. Irabaziak ateratzen diren heinean bankuari zorrak itzuliko dizkiogu eta behin zor guztiak ordainduta, etorkizunean irabazitako diruarekin enpresan inbertitzen hasiko gara, gure instalakuntzak, zerbitzuak, langileen prestakuntza bereziak... ahalik eta gehien hobetzeko.

Hornitzaile gehienekin kontratu bat sinatuko dugu eta gure enpresarekin elkartuko dira, enpresa berri hau sortuz. Hau da, ez dute guretzat lan egingo baizik eta gurekin lan egingo dute.